



LURRALDE-POLITIKA ETA KONTRATAZIO ARLOA.-
Planeamendu, Kudeaketa eta Ingurumen Atala.-

**JARDUKETA KOMUNIKATUEI ETA HIRIGINTZA-LIZENTZIAK LORTZEKO
DOKUMENTAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

Alkatetzak urriaren 21ean emandako 330/16 Dekretuan xedatutakoa betetzeko, eta Jarduketa komunikatuei eta hirigintza-lizentziak lortzeko dokumentazioari buruzko Udal Ordenantza argitaratzean antzemandako akatsa zuzentze aldera, aipatutako Ordenantzari behin betiko onespena eman osteko testu osoa argitaratzen da. Testu horrek ordeztu egingo du 189 zenbakidun BAO-n (2016ko urriaren 3koa) argitaratutako testua, eragin guztietarako.

**JARDUKETA KOMUNIKATUEI ETA HIRIGINTZA-LIZENTZIAK LORTZEKO
DOKUMENTAZIOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA**

1. artikulua.- Jarduketa komunikatua

Garrantzi txikiko obretarako, aurretiazko komunikazioa behar duten jarduerak hasteko, eta ordenantza honetan aurreikusitako bestelako jarduketetarako baimena eskuratzeko, eskatzaile fisiko edo juridikoak eskaera egin beharko du aurretiaz eta idatziz, dagokion inprimaki normalizatuaren bidez.

Hauexek dira aurretiazko komunikazioa aski duten obrak:

-Eraikinaren egiturari, segurtasunari zein egonkortasunari eragin ez, edota eraikigarritasuna (solairuarteak) handitzen ez duten obra txikiak; edota 750 m²-tik beherako merkataritza-lokalak egokitzeko lanak (merkataritza eta zerbitzu zehatz batzuk liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legearen Eranskinean aurreikusitakoak).

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren II. B) Eranskinean zerrendatutako jarduerak, berriz, aurretiazko komunikazioa beharko dute.

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren II. A) Eranskineko jarduera sailkatuek ere —zeintzuek jarduera-lizentzia behar baitute— aurretiazko komunikazioa beharko dute.

C-1etik C-8ra bitarteko fitxek jasotzen dituzte jakinarazpena juridikoki balioduna izateko bete beharreko baldintzak, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

2. artikulua.- Prozedura



Dagozkion egiaztapenak egin ondoren, eskatzaileari betetako komunikazio-inprimakiaren kopietako bat itzuliko zaio, «Jarduketa komunikatua» zigilua jarrita.

Aurkeztutako dokumentazioa Hirigintza Atalari helaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako (dokumentuak berrikustea; ikuskatzea; udal erregistroetan inskribatzea; eta abar). Antzemango balute erantzukizunpeko aitorpenarekin edo aurretiazko komunikazioarekin batera doan edozein datu, adierazpen edo dokumentutan zehaztasun falta, faltsutasuna edota omisioa gertatu dela, eta hori funtsezkoak balitz, ezinezkoa izango da dagozkion jarduera, obra edo jarduketa komunikatuarekin jarraitzea.

Inguruabar horiek aitortzen dituen administrazio ebazpenak ezarri ahal izango du interesdunak obligazioa duela egoera juridikoa leheneratzeko, hain zuzen ere, dagozkion eskubidea aitortu edo egikaritu aurreko egoerara, edota dagozkion jarduera hasi aurreko egoerara. Era berean, ebazpen horrek ezarri ahalko du prozedura berriari ekin behar zaiola, xede berberarekin eta denbora-tarte zehatz batean zehar. Aipatutako guztia, aplikatzekoak diren arauetan zehaztutako moduan egin beharko da.

3. artikulua.- Baldintza orokorrak

Sistema honekin izapidetutako baimenak ez dira lortutzat joko isiltasun administratiboagatik, baldin eta legediaren edo hirigintza planeamenduaren aurka badoaz. Ez dute eraginik izango agiri okerrean, osatu gabeen edota desegokien bitartez komunikatutako jarduketek.

Jarduketa horiek duten prozedurazko araubideak ez ditu horien titularrak salbuetsiko eginbehar fiskal, administratibo eta zibiletatik, edota aplikatzea dagozkion indarreko araudiak ezarritako erantzukizun penal edo zibiletik.

4. artikulua.- Jarduketa komunikatuaren eraginak

4.1.- Jakinarazitako jarduketak eraginak izango ditu Udalaren eta jakinarazitako jarduketa hori gauzatzen ari den subjektuaren artean, baina ez ditu aldatuko subjektu horren eta beste pertsonen arteko egoera juridiko pribatua. Jarduketa komunikatuak egingo dira jabetza-eskubidea alde batera utzita eta, betiere, hirugarrenei kalterik egin gabe. Titularrarena izango da erantzukizun osoa.

4.2.- **C** hizkia duten fitxetan deskribatutako obrak baino ezin izango dira exekutatu, eta fitxa horietan jasotako jarduerak baino ezin izango dira hasi. Berariaz adierazitako horietatik kanpo aritu ahal izateko, dagozkion baimena eskatu beharko da; gainera, horrek ez du eragotziko dagozkion zehapenak ezartzea, aurretiaz hirigintza-arauak urratzeagatiko zehapen-espedientea ireki eta gero.

4.3.- Interesatuak udal zerbitzuen esku jarri beharko du eginbidetutako jakinarazpen inprimakia, eta zerbitzu horietako udal langileei obran edo jardueran sartzen utzi beharko die, dagozkion ikuskapenak eta egiaztapenak egin ditzaten.



BASAURI

Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

4.4.- Jakinarazpenetik 6 hilabeteko epean egin beharko dira lanak, gehienez ere. Epe hori igarotakoan iraungitzat joko da jarduketa komunikatua, interesdunak luzapena eskatzen ez badu —horrek epea eten egingo luke eta—. Bestalde, eskatutako jarduketa burutzeko luzapena, gehienez ere, beste sei hilabetekoa izan daiteke, eta behar bezala arrazoitua egon behar du.

4.5.- Inola ere ezin da lanik edo jarduketarik egin hirigintzako ordenazioaren edota indarreko legediaren aurka.

4.6.- Eragina duten neurrian, honako hauek bete beharko dira: Irisgarritasuna Sustatzeko 20/97 Legea; 68/2000 Dekretua; Eraikuntzaren Kode Teknikoa onetsi zuen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua; Behe-tentsioari buruzko Araudi Elektroteknikoa jasotzen duen 842/2002 Dekretua; Eraikuntzako Instalazio Termikoei buruzko Araudia; Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; egoitzarako bizitegi-lurzoru hiritarrean aurrera eramango diren jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuei aplikatu beharreko izaera orokorreko arau teknikoak onesteko ekainaren 11ko 171/1985 Legea; lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; eraikuntzako eta eraisteetako hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua; Hiri-antolamenduko Plan Orokorreko hirigintza arauetan eta udal ordenantzetan xedatutakoa; eta aplikagarri den indarreko beste edozein xedapen.

4.7.- Obrak hasi eta gero aldaketak egin nahi badira, Udalari horren berri eman beharko zaio, idatziz.

4.8.- Lanak egitean, nahitaez konpondu beharko dira obrek bide publikoan edo hiri-altzarietan eragindako kalteak. Era berean, lanotan segurtasun-, osasungarritasun- eta garbitasun-baldintzak gorde beharko dira.

4.9.- Kaleetan ezingo da aldamiorik, eskailerarik, makinarik, tresnarik edo tresneriarik jarri, ezta inolako objektu eta eraikuntzarako materialik ere, baldin eta igarotzea oztopatzen badute eta horretarako berariazko baimenik ez baldin badaukate. Udaltzaingoak bide publikotik kendu ahal izango ditu elementu horiek eta baimenik gabeko edukiontziak.

5. artikulua.- Udal kontrol eta ikuskapena

Udal zerbitzu teknikoek indarreko legediak emandako ikuskapen-funtzioak egikaritzeko dituzte, hirigintzako legeria bete egiten dela egiaztatzeko. Horretarako, honako hauek baliatuko dituzte: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 217. eta 218. artikuluetan jasotakoak; Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/92 Legearen 39 bis 2 artikuluan jasotakoak; eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorreko 64. artikulua eta hurrengoak (apirilaren 23ko 7/12 Legeak 3/98 hori eta beste zenbait lege aldatu zituen, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/CE Direktibara moldatzeko).

6. artikulua.- Jardueraren titulartasuna aldatzea



Jarduera-lizentziak eskualdagarriak dira. Ordea, eskualdatzaileak eta lizentzia jasotzen duenak eskualdatze horren berri eman beharko diote Udalari, idatziz; horrela egin ezean, titularrari legozkiokeen erantzukizunak izango dituzte biek.

C-7 fitxan (jardueraren titulartasun-aldaketa jakinaraztea) jasotzen dira titulartasun-aldaketa edota eskualdatze komunikatua juridikoki balioduna izateko baldintzak eta dokumentazioa.

6.1.- Ostalaritzako jarduera-lizentzien titulartasuna aldatzeko, jarduera horietarako baldintza espezifikoa bete beharko dira (ostalaritza establezimenduak arautzeko Udal Ordenantzan daude jasota).

6.2.- 1985eko ekaina baino lehen hasi, eta Eusko Jaurlaritzaren 171/1985 Dekretuaren eremukoak diren jarduera-lizentzien titulartasun aldaketak egiteko, dekretu horrek bizitegi-lurzor hiritarrean abiatzeko diren jarduera gogaikarri, kaltegarri, osasungaitz eta arriskutsuei aplikatzeko aurreikusitako neurri teknikoak bete beharko dira.

7. artikulua.- Hirigintza-lizentziak

Hirigintza-lizentzia da Udalari eskatu behar zaiona, aurrera eraman nahi den egintzak lizentzia horren beharra duelako, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legearen 207. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

L-1etik L-13ra bitarteko fitxek jasotzen dute lizentzia horien norainokoa, aurkeztu beharreko dokumentazioa, epeak eta berauek eskatu ahal izateko bete beharreko baldintzak.

8. artikulua.- Dokumentazioa

Hirigintza-lizentzien eskabideei honako hauek erantsi beharko zaizkie:

- Kategoria bakoitzari dagokion fitxan jasotako dokumentazio teknikoa. Proiektuak edo memoria teknikoak, bestalde, eskumena duen teknikariak sinatuta egon beharko dira —eta, aplikatzekoa den araudiak hala aginduz gero, haren elkargoak ikus-onetsita ere bai—. Proiektu edo memoriaren beharrik ez duten eskabideek, nahitaez, aurrekontu batez lagunduta joan beharko dute.



Kasuan-kasuan aplikatu beharreko araudiak ezarritako baimenak (trenbideen, osasunaren, uren, errepideen, telekomunikazioen... sektoreko araudiak).

- Dagokion emakida, egintzak jabari publikoa okupatzea edota erabiltzea badakar.

9. artikulua.- Prozedura

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko indarreko 2/2006 Legeko 210. artikuluan ezarritako prozeduraren menpe egongo dira hirigintza-lizentziak.

10. artikulua.- Baldintzak

Ezingo dira eskuratu hirigintza-arloko ordenazioarekin edota indarreko legeriarekin bat ez datozen ahalmenak edo eskubideak, ezta isiltasun administratibo positiboa ematen denean ere. Edozelan ere, lizentziek ez diete kalte egingo ez jabetza-eskubideari, ez eta hirugarrenei ere.

15 eguneko epea egongo da akatsak zuzentzeko.


11. artikulua.- Lizentzien eskualdagarritasuna

Jarduera-lizentziak eskualdagarriak dira. Ordea, eskualdatzaileak eta lizentzia jasotzen duenak eskualdatze horren berri eman beharko diote Udalari, idatziz; horrela egin ezean, titularrari legozkiokoen erantzukizunak izango dituzte biek.

Lizentziak, eman zireneko baldintza beretan eskualdatuko dira eta eskuratzaileri berriak baldintza horietatik datozen eskubide eta betebeharrak hartuko ditu bere gain. Lizentziaren espedientean lagapenak, abalak eta beste edozein motatako bermeak agertuko balira, eskuratzailerik konpromiso horiek guztiak hartu beharko ditu bere gain. Abalak egongo balira, dagozkionak aurkeztu beharko ditu, aurreko titularrak jarritakoak kitatu aurretik.

12. artikulua.- Indarrean sartzea

Jarduketa komunikatuei eta hirigintza-lizentziei buruzko Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi, eta hamabost eguneko epean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki.



C-1**ETXEBIZITZA BARRUKO OBREN
KOMUNIKAZIOA*****Zein obra barne hartzen dituen***

Sukaldeak, komunak, tronadurak berritzea; sabai aizunak; leihoak aldatzea; pintatzea; instalazioak berritzea; eta antzekoak.

Obra horien luzapenak ere, eredu honen bidez komunikatu beharko dira.

Baldintzak

Obrek ez diote eraikinaren egiturari, estetikari edota fatxadari eragin behar.

Prozedura honek ez ditu barne hartuko egurrezko egituradun eraikinetako etxebizitzaren barrualdean egin beharreko lanak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Kontratatuakoaren aurrekontua, partidaka xehatua.



C-2

ERAIKINAREN EREMU KOMUNETAKO OBREN KOMUNIKAZIOA

Zein obra barne hartzen dituen

Atarietako eta eskaileretako barrualdeko eremu komunetan egindako obrak, adibidez: zoladurak eta estaldurak berritzea; sabai aizunak; leihoak aldatzea; instalazioak berritzea; pintatzea; eta antzekoak.

Eraikinaren kanpoaldeko eremu komunetan (terrazak, barruko patioak, estalki lauak, egindako lanak, teilatu lauak, eta abar) egindako obrak, bide publikoan eraginik ez dutenak, adibidez: zoladurak berritzea; iragazgaizteak; estaldurak; eta antzekoak.

Obra horien luzapenak ere, eredu honen bidez komunikatu beharko dira.


Baldintzak

Obrek ez diote eraikinaren egiturari, estetikari edota fatxadari eragin behar.

Prozedura honek ez ditu barne hartuko egurrezko egituradun eraikinetako etxebizitzaren barrualdean egin beharreko lanak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Kontrataturakoaren aurrekontua, partidaka xehatua.



C-3

MERKATARITZA-LOKALETAKO OBREN KOMUNIKAZIOA

Zein obra barne hartzen dituen

750 m²-tik beherako azalera izan, eta publikoarentzako salmenta egiteko erabilitako merkataritza-lokalak atontzeko edo berritzeko lanak. Lokal horiek txikizkako merkataritza-jarduerarako edo zerbitzuak emateko erabili beharko dira (merkatua eta zerbitzu jakin batzuk liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legean jasotako zerbitzuak, hain zuzen ere).

Edozein motatako merkataritza-lokaletan egin beharreko zaintza-, mantentze- edo konponketa-lanak.

Fatxadetan errotuluak, pertsianak, olanak, alarmak, eta abar jartzea.

Merkataritza-lokaletan jakinarazpena behar duten obrak luzatzea.

Baldintzak

Indarreko Hiri-antolamenduko Plan Orokorreko hirigintza-arauetan definitutakoak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Lokala goitik behera berritzeko lanetarako:

- Egin beharreko lanak deskribatu eta bidezkotzen dituen memoria, teknikari eskudunak sinatua, partidaka xehatutako aurrekontuarekin batera.

Lokalean zaintza-, mantentze- edo konponketa-lanak egiteko:

- Kontratututakoaren aurrekontua, partidaka xehatua.

Fatxadetan errotuluak, pertsianak, olanak, alarmak, eta abar jartzea.

- Kontratututakoaren aurrekontua, partidaka xehatua.
- Fatxadaren argazkia, jarri nahi den gauzaren krokisarekin.



C-4

OBRA-HONDAKINETARAKO EDUKIONTZIA EDO ZAKUA JARTZEARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA

Eremua

Espazio publikoetan obra-hondakinetarako edukiontzia edo zakuak jartzea.

Baldintzak

Zoladura ez hondatzeko, berriaz debekatzen da obra-hondakinetarako edukiontzia espaloi gainean edota oinezkoen eremuetan jartzea: asfaltatutako aparkalekuetan kokatu beharko dira.

Zoladura hondatuko ez duten zakuak, berriz, oinezkoen eremuetan jarri ahal izango dira, baldin eta, jarri eta gero, oinezkoen joan-etorriak oztopatzen ez badituzte eta, gutxienez, oztoporik gabeko 2,00 m-ko ibilbidea bermatzen badute.

Edukiontzietara eta zaketara botatakoa kontrolatuko da, horien sakonera gainditu ez dezan.

Edukiontzia eta zakuak bide publikotik kendu behar izango dira honako kasu hauetan:

- Baimenaren epea agortzen denean.
- Beteta egon bezain laster (hustu ditzaten).
- Ostiraleko 18:00etatik asteleheneko 08:00etara. Ostirala edo aurreko egunak, zein astelehena edo osteko egunak jaiegunak badira, epe hori luzatu egingo da hasierako edo amaierako lehen egun baliodunera.


Edukiontzia txukun eta garbi egongo dira.

Edukiontzia edo zakua bide publikotik kendu eta gero, tokia garbi utzi beharko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Honako informazio hau jasotzen duen idatzia:

- Emandako lizentziaren edo egindako komunikazioaren kopia, hain zuzen ere, edukiontzia zein obratan erabiliko den jasotzen duena (edukiontzioak lokalen garbiketa-lanetan erabiltzen direnean salbu).
- Edukiontzia edo zakuen kokapena; zenbat m² hartuko dituen; eta zenbat denboratan zehar egongo den jarrita.



Barne hartutako jarduerak

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari uruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.

Hauexek dira aurretiazko komunikazioa behar duten jarduera ohikoenak:

- Toxiko, arriskutsu edo suharbera bezala katalogatutako produktu eta materialak hartzen ez dituzten biltegiatze-, merkaturatze- eta erakusketa-jarduerak (500 kg baino gutxiago, bizitegi-lurzoru hiritarrean; eta 1.000 kg baino gutxiago, gainerakoetan).
- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa edota elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW baino txikiagoa bada eta ekoizpenerako erabilitako azalera 300 m²-tik beherakoa bada. Atal honetatik kanpo daude ibilgailuen kanpoaldeetan tratamenduak egiten, bernizatzen, pistolaz pintatzen eta abar diharduten tailerrak, eta motordun ibilgailuetan eta antzekoetan mantentze- eta konponketa-lanak egiten dituztenak ere bai.
- Ibilgailuetarako zaindegiak.
- Zenbait zerbitzuri dagozkien jarduerak: haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun zentroak, botikak, albaitaritza-klinikak, bulegoak, ileapaindegiak, masaje-aretoak eta antzekoak.
- Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta ikuskizun publikoak edo jolas-jarduerak eskaintzen dituzten establezimenduak, hain zuzen ere, 300 pertsonatik beherako edukiera dutenak edota giro-musikaren parekoa den 50 wattetik beherako potentziadun musika-ekipoa dutenak (4 ohmioko karga estandarrerako).
- Informazioa tratatu eta komunikatzeko zentroak (kalkulu-zentroak; datu-bankuak; irrati- eta telebista-errepikagailuak; satellite bidezko errepikagailuak; telefonia mugikorreko antenak eta estazio-baseak; informazioaren tratamendu elektroniko edo informatikorako zentroak; irrati-telefonoko eta irrati telegrafikoko estazioak; irrati- eta telebista-igorgailuak; eta alarmak kontrolatzeko zentralak zein horien parekoak).



Baldintzak

Aurretiazko komunikazioa behar duen jarduera bati hasiera emateko, komunikazio hori Udalean formalizatu beharko da, **dena delako instalazioak lanean hasteko prest daudenean**. Hala badagokio, sektorerako ezarritako lizentziak edo baimenak ere izan behar dira (Osasunekoa, Industriakoa...).

Komunikazioa egin ostean, jarduera hasi ahalko da komunikazioa egin den datan bertan.


Jarduera hasiko da titularren eta egiaztagiria eman duten teknikarien erantzukizun eskusibo pean. Horrez gain, jarduera hasteko beharrezkoak izango dira sektoreko araudian jasotako nahitaezko gaitasun-titulu administratiboak, edota aurretiazko kontrolari dagozkionak.

Ostalaritza-jarduerak, gainera, Ostalaritza Establezimenduak arautzen dituen indarreko Udal Ordenantzan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- **Memoria**, ondoko hauek jasotzen dituen: establezimenduaren deskribapena, jardueraren deskribapena eta jarduera horrek ingurumenean, pertsonengan edota horien ondasunengan izan dezakeen eragina txikiagotzeko ezarritako neurriak.
- Teknikari eskudunak sinatutako **egiaztagiria**, non jasoko den jarduera aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datorrela eta ingurumen-arloko baldintza guztiak betetzen dituela.
- **Ekonomia Jardueren gaineko Zergako (EJZ) altaren kopia.**
- **Zabor-bilketa eta Estolderiako Tasen altaren kopia.**

Aipatutakoez gain, Ostalaritza Establezimenduak arautzen dituen indarreko Udal Ordenantzan jasotako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte ostalaritza-establezimenduek.



C-6

JARDUERA-LIZENTZIA BEHAR DUEN JARDUERAREN HASIERA

Barne hartutako jarduerak

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren II A Eranskinean zerrendatutakoak.

Hona hemen jarduera-lizentzia behar duten jarduera sailkatu ohikoenak:

- Industriak, oro har.
- Ibilgailuen kanpoaldean tratamenduak egiten, bernizatzen, pistolaz pintatzen eta abar diharduten tailerrak; eta motordun ibilgailuetan eta antzekoetan mantentze- eta konponketa-lanak egiten dituztenak ere bai.
- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-koa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako erabilitako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.
- Toxiko, arriskutsu edo suharbera bezala katalogatutako produktu eta materialak hartzen dituzten biltegiatze-, merkaturatze- eta erakusketa-jarduerak (500 kg-tik gora, bizitegi-lurzoru hiritarrean; eta 1.000 kg-tik gora, gainerakoetan).
- Dantzalekuak eta jaiak egiteko establezimenduak, klubak, diskotekak, disko-tabernak, karaokeak, pubak eta antzekoak.
- Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta ikuskizun publikoak edo jolas-jarduerak eskaintzen dituzten establezimenduak, hain zuzen ere, 300 pertsonatik gorako edukiera dutenak edota giro-musikaren parekoa den 50 wattetik gorako potentziadun musika-ekipoa dutenak (4 ohmioko karga estandarrerako).

Baldintzak

Aurretiaz emandako jarduera sailkatuko lizentzia eduki beharko du dena delako jarduerak.

Aurretiazko komunikazioa egingo da jarduera sailkatuen lizentzian jasotako neurri zuzentzaileak ezarri, eta instalazioak egokitu eta gero.



Komunikazioa egin ostean, jarduera hasi ahalko da komunikazioa egin den datan bertan.

Jarduera hasiko da titularren eta egiaztagiria eman duten teknikarien erantzukizun eskusibo pean. Horrez gain, jarduera hasteko beharrezkoak izango dira sektoreko araudian jasotako nahitaezko gaitasun-titulu administratiboak, edota aurretiazko kontrolari dagozkionak.


Ostalaritza-jarduerak, gainera, Ostalaritza Establezimenduak arautzen dituen indarreko Udal Ordenantzan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Teknikari eskudunak sinatutako **egiaztagiria**, non jasoko den jarduera aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat datorrela eta ingurumen-arloko baldintza guztiak betetzen dituela.
- **Ekonomia Jardueren gaineke Zergako (EJZ) altaren kopia.**
- **Zabor-bilketa eta Estolderiako Tasen altaren kopia.**

Nahitaezkoa balitz, beharrezkoa izango da lurzoruaren kalitateari buruzko ebazpena ere —hala xedatzen du lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta hura zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak—.

Aipatutakoez gain, Ostalaritza Establezimenduak arautzen dituen indarreko Udal Ordenantzan jasotako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte ostalaritza-establezimenduek.



Eremua

Edozein motatako jardueren titulartasun-aldaketak.

Baldintzak

Titular berriak, aurrekoak egikaritutako jarduera berbera garatu beharko du.

Komunikazioa egin ostean, jarduera hasi ahalko da komunikazioa egin den datan bertan.

Jarduera hasiko da titularren eta egiaztagiria eman duten teknikarien erantzukizun eskusibo pean —egoki balitz—. Horrez gain, jarduera hasteko beharrezkoak izango dira sektoreko araudian jasotako nahitaezko gaitasun-titulu administratiboak edota aurretiazko kontrolari dagozkionak.

Ostalaritzako jardueretan, titulartasuna aldatzeko, jarduera horietarako baldintza espezifikoak bete beharko dira (ostalaritza establezimenduak arautzeko Udal Ordenantzan daude jasota).

Ekainaren 11n sartu zen indarrean 171/1985 Dekretua, etxebizitzetarako bizitegi-lurzoru hiritarrean egiteko diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatzeko diren izaera orokorreko arau teknikoak jasotzen dituenak. Dekretu hori indarrean sartu aurretik hasitako jardueretarako, bertako Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari men egingo zaio.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- **Titulartasun-aldaketarako eredu normalizatua**, titular lagatzaileak eta titular hartzekodunak sinatuta.
- **Jarduera lagako duenaren NANaren** fotokopia.
- **Jarduera jasoko duenaren NANaren** fotokopia.
- Titular berriaren **Ekonomia Jardueren gaineko Zergako (EJZ) altaren** kopia.
- **Zabor-bilketa eta Estolderiako Tasen altaren** kopia.



C-8

EIT TXOSTENA EGIN IZANAREN KOMUNIKAZIOA

Eremua

Berrogeita hamar urtetik gorako etxebizitza-eraikinak, ordenaziotik kanpo utzitakoak barne.

Eraikin katalogatuak, beren antzinasuna edozein dela ere.

Udal laguntzak eskatzen dituzten eraikinak, beren antzinasuna edozein dela ere.

Kanpo geratuko dira bide publikora edo erabilera publikoko eremura ematen duen fatxadarik ez duten etxebizitza bakarreko eraikin isolatuak.


Baldintzak

EIT Txostena egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa arautzen duen azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eraikinaren Ikuskaritza Teknikoari buruzko txostena, arkitektoak edo arkitekto teknikoak sinatutakoa; horrekin batera, txostenaren kopia CDan, pdf edo xml (zip) formatuan.

xml fitxategiak izango dira Eusko Jaurlaritzaren Eraikinen Ikuskaritza Teknikoko aplikazio informatikoak esportatzeko sortutakoetakoak.



L-1

JARDUERA SAILKATUETARAKO LIZENTZIA

Barne hartutako jarduerak

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren II A Eranskinean zerrendatutakoak.

Hona hemen jarduera-lizentzia behar duten jarduera sailkatu ohikoenak:

- Industriak, oro har.
- Ibilgailuen kanpoaldean tratamenduak egiten, bernizatzen, pistolaz pintatzen eta abar diharduten tailerrak; eta motordun ibilgailuetan eta antzekoetan mantentze- eta konponketa-lanak egiten dituztenak ere bai.
- Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-koa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako erabilitako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.
- Toxiko, arriskutsu edo suharbera bezala katalogatutako produktu eta materialak hartzen dituzten biltegiatze-, merkaturatze- eta erakusketa-jarduerak (500 kg-tik gora, bizitegi-lurzoru hiritarrean; eta 1.000 kg-tik gora, gainerakoetan).
- Dantzalekuak eta jaiak egiteko establezimenduak, klubak, diskotekak, disko-tabernak, karaokeak, pubak eta antzekoak.
- Ostalaritza-establezimenduak, jatetxeak eta ikuskizun publikoak edo jolas-jarduerak eskaintzen dituzten establezimenduak, hain zuzen ere, 300 pertsonatik gorako edukiera dutenak edota giro-musikaren parekoa den 50 wattetik gorako potentziadun musika-ekipoa dutenak (4 ohmioko karga estandarrerako).

Baldintzak

Jarduera-lizentzia eskuratzeak ez du jarduera hasteko ahalmenik ematen. Jarduerari ekiteko, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorrean jasotako egiaztagiria aurkeztu beharko dira, eta jarduera hasiko dela komunikatu.



Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Teknikari eskudunak sinatutako proiektu teknikoa, non jasoko diren jardueraren ezaugarriak; berau kokatuko den ingurunearen deskribapena; jarduerak ingurumenean izan ditzakeen eraginak; eta proposatutako neurri zuzentzaileak, beren eraginkortasun-maila eta segurtasun-bermea adieraziz. Proiektu tekniko horren 3 ale aurkeztuko dira: 2, paperean + 1 CDan (pdf fitxategi bakarrean).

Martxan jarri nahi den jarduera kokatu nahi den tokian kutsakorra izan zitekeen jarduera edo instalazioa badago edo bazegoen, **lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/15 Legeak aurreikusitako prozeduraren bat hasi** izanari buruzko egiaztagiria ere aurkeztu beharko da.

Ebazteko epea


6 hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-2**LOKALA BERRITZEKO LANETARAKO
LIZENTZIA*****Zein obra barne hartzen dituen***

Lokalak egokitze edo berritze lanak, hain zuzen ere, merkataritza eta zerbitzu jakin batzuk liberalizatzeari buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legearen eremutik at dauden jarduerak aurrera eramateko. Besteak beste, honako jarduera hauek hartuko ditu lizentzia honek:

- 750 m²-tik gorako azalera eta saltokia duten jarduerak.
- Ostalaritzako jarduerak.
- Oro har, sailkatutako jarduera-lizentziaren menpe dauden jarduerak.

Baldintzak

Ostalaritza-jarduerak, gainera, Ostalaritza Establezimenduak arautzen dituen indarreko Udal Ordenantzan jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egin beharreko lanak deskribatu eta bidezkotzen dituen memoria, teknikari eskudunak sinatua, partidaka xehatutako aurrekontuarekin batera.

Aipatutakoez gain, Ostalaritza Establezimenduak arautzen dituen indarreko Udal Ordenantzan jasotako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte ostalaritza-establezimenduek.

Ebazteko epea

Hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-3

ERAIKINEAN ZAINZA-, MANTENTZE- EDO KONPONTZE-LANAK EGITEKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Eraikinaren fatxadetan edo estalduretan aldian-aldian egin beharreko lanak, eraikina hondatu dadila ekiditeko. Edota eraikina egoera onean mantentzeko egindako konponketak, adibidez:

- Konponketa txikiak.
- Estalduretako akatsak konpontzea.
- Teila bakanak aldatzea.
- Erretenak eta zorrotenak aldatzea.
- Fatxadak margotzea.
- Antzeko beste batzuk.

Eraikuntza arautzeko Legearen eremutik kanpo geratzen diren obrak dira, non Eraikuntzaren Kode Teknikoa ere ez den aplikagarri.

Baldintzak

Bide publikoa egokiro babestu beharko da, oinezkoei eraikuntza-materialak gainera erortzea ekiditeko.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Bide publikoa okupatzen ez bada:

- Kontrataturakoaren aurrekontua, partidaka xehatua.

Bide publikoa okupatzen bada:

- Kontrataturakoaren aurrekontua, partidaka xehatua.
- Erabiliko diren baliabide osagarrien (aldamioak, babes-hegalak, langileak garraiatzeko igogailua, lan bertikalak, eta abar) deskribapena jasotzen duen txostena.



Ebazteko epea

Hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-4

ERAIKINEAN ERABERRITZE-LANAK EGITEKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Eraikinetan egin beharreko lanak, mantentze- edo konpontze-lanak ez direnak.

Eraikuntza arautzeko Legearen eremutik kanpo geratzen diren obrak dira, non Eraikuntzaren Kode Teknikoa aplikatzem den. Adibidez:

- Estaldurak berritzea (teila berriak jartzea).
- Fatxadetako berritze-lanak, baldine ta eraikinaren arkitektura-egituratzea aldatzen ez badute (estaldurak aldatzea, SATE-kanpoaldetiko isolatze termikoko sistema, eta abar).
- Hobi septikoa baliogabetzea.
- Jabekideen komunitatean gasa jartzea.
- Eguzki-energia jasotzeko sistemak instalatzea.
- Antzeko beste batzuk.

Baldintzak

Bide publikoa egokiro babestu beharko da, oinezkoei eraikuntza-materialak gainera erortzea ekiditeko.


Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egin beharreko lanak deskribatu eta oinarritzen dituen memoria, teknikari eskudunak sinatua, non berariaz adieraziko den Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta aplikagarri den gainerako araudia betetzen dela.

Partidaka xehatutako aurrekontua.

Erabiliko diren baliabide osagarrien (aldamioak, babes-hegalak, langileak garraiatzeko igogailua, lan bertikalak, eta abar) deskribapena jasotzen duen txostena, baldin eta bide publikoa okupatzen bada.

Egin beharreko lanen arriskuaren ebaluazio espezifikoa.



Ebazteko epea

Hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-5

ERAIKUNTZA-LANETARAKO LIZENTZIAK

Zein obra barne hartzen dituen

Eraikuntza arautzeko Legearen aplikazio-eremuaren barruko obra guztiak:

- Eraikin berriak egiteko lanak.
- Eraikinen arkitektura-egitura aldatzen duten handitze, eraldatze, berritze edo zaharberritze-lanak. Adibidez:
 - Egitura aldatzen duten lanak: igogailuak jartzea, solairuarteak eraikitzea.
 - Eraikinaren kanpoko fatxadak nabarmenki aldatzen dituzten lanak: zulo berriak zabaltzea, fatxada aireztatuak.
 - Eraikinaren bolumetria aldatzen duten lanak.
 - Eraikinaren ohiko erabilerak aldatzeko xedez egindako lanak.
- Katalogatutako eraikinetan, edota ingurumenari, historiari zein arteari lotutako arrazoiak direla-eta babes berezia duten eraikinetan egin beharreko esku-hartze totalak.

Baldintzak

Obra-zuzendaria eta obraren egikaritze materialerako zuzendaria egon beharko dira.

Eraikin berrietarako lanetan, Oinarrizko Proiektudun lizentziak iraungitze-datadun epean burutu beharko dira. Epe horretan zehar, Obrak Hasteko Baimenaren fitxan jasotako dokumentazioa erantsiko zaio hasieran entregatutakoari. Beraz, eraikuntza berrietarako oinarrizko proiektudun lizentziek ez dakarte, berez, obrak hasteko baimenik.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan egin beharreko obrei dagokienez, berriz, iraungitze-epea luzatu ahal izango da, dagokion ingurumen-organoak lurzoru horren kalitateari buruzko ingurumen-aitorpenaren gainean ebatzi arte.



Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eraikuntza berrietarako obra-lizentziaren kasuetan, teknikari eskudunak sinatutako oinarrizko proiektua aurkeztu beharko da, non jasoko baita aplikagarri den araudi teknikoko baldintzen arabera proposatutako irtenbideen justifikazio teknikoa.

Oinarrizko Proiektuaren edukia, bestalde, Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritakoaren arabera izango da.

Oinarrizko Proiektuaz gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Urbanizazio osagarriko dokumentazioa: memoria eta planoak.
- Hirigintza-aprobetxamenduaren eskualdatzea (kasua bada). Hirigintza-aprobetxamenduaren eskualdaketa formalizatzeko proposamena, 5/1998 Legearen Xedapen Gehigarrian finkatutako moten arabera.
- Nahitaezko eta doako lagapenen, edota erabilera publikoko bide-zorrak eratu izanaren eskrituraren zirriborroa.

Oinarrizko proiektuko obrak kutsatuta egon litekeen lursail batean egingo badira, lurzorua kalitate-adierazpena egiteko prozedurari hasiera eman diezaiotela eskatzeko Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzari aurkeztutako agiriaren kopia erantsi beharko da (Lurzorua kutsadura prebenitzeari eta zuzentzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea).

Ebazteko epea

3 hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Ezesleak.



L-6

ERAIKUNTZA-LANEKIN HASTEKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Oinarrizko proiektua aurkeztu, eta iraungitze-epearen mendeko lizentzia lortu duten obrak.

Baldintzak

Indarreko Hiri-antolamenduko Plan Orokorreko hirigintza-arauetan definitutakoak.


Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Exekuzio-proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta haren elkargo ofizialak ikus-
onetsia.

Exekuzio-proiektuaren edukia, bestalde, Eraikuntzaren Kode Teknikoak ezarritakoaren
araberakoa izango da.

Exekuzio-proiektuaz gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Zuzkidura publikoetarako (bideak, espaloiak, plazak edo lorategiak, eta abar) izango diren lursailen lagapenari buruzko aldebiko eskrituren kopia baimendua, edota erabilera publikoko zortasuna eratzeari buruzkoa —baldin eta urbanizatutako lursailek sestrarepeko aprobetxamendu pribatiboa badute—, dagokien planoaz lagunduta.
- Hirigintza-aprobetxamendurako eskualdatzearen formalizatzea proposatzen bada, eskualdatutako aprobetxamendu hori dagokien lurzatiaren edo lurzati-lagapenaren eskritura aurkeztu beharko da, edota, bestela, Administrazioetik dagozkion aprobetxamenduak eskuratu izanaren egiaztatzea.
- Hala balitz, eskualdatutako aprobetxamendua dagokion partzelaren urbanizazio-kuota sartu izanaren egiaztatzea.
- Bankuaren abala sartu izanaren egiaztatzea, ohiko urbanizazio obrak zuzen egin izanaren berme gisa. Zenbateko hori, bestalde, obren hasierarako baimenaren jakinarazpenean adierazitako epe barruan egin beharko da —eta, edozelan ere, zuinketa-akta jaso aurretik—.



- Hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan Erkidegoak duen parte-hartzea. 27. artikulua. Lurzoruaren Euskal Legea. Ohiko sistemaren ordeztu, dirutan ordaindu beharko balitz, Udalari dagokion zenbatekoa sartu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Diru-sarrera hori, edozelan ere, obren zuinketa-akta jaso aurretik egin beharko da.
- Ustez kutsatutako lurzoruan egin behar badira obrak, Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren oniritzia jasotzen duen agiria aurkeztu beharko da, hain zuzen ere, lurzoruen kalitateari buruzko prozedura ebatzen duena.
- Eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko fiantza sartu izanaren egiaztagiria (8112/2012 Dekretua).

Ebazteko epea

Bi hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Ezesleak.



L-7

ERAIKUNTZA-LANAK LEHENENGOZ OKUPATZEKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Lizentzia hau eskatuko da honako kasu hauetan:

- Erakin berrien lehen erabileran.
- Erabat birgaitutako/zaharberritutako eraikinak erabiltzeko, baldin eta kanpoko itxura orokorraren funtsa, bolumetria edota eraikuntza-sistema aldatu duen esku-hartzea eman bada.
- Eraikinaren ohiko erabilera eraldatu duten lanak jasan dituen eraikina erabiltzea.
- Merkataritza-lokala etxebizitza bihurtzea.
- Katalogatutako edota nolabaiteko ingurumen-babesa edo babes historiko-artistikoa duten eraikinak erabiltzea, horietan erabateko esku-hartze lanak egin eta gero.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Obra amaierako egiaztagiria eta likidazioa, lanak zuzendu dituen teknikariak sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak behar bezala ikus-onetsita.

Egindako lanaren argazki-sorta.

Obra-amaieraren dokumentazio grafikoa: plantaren planoak, altxaerak eta exekutututako urbanizazio-planta, exekutututako zerbitzuak jasota (argiztatze publikoa; uraren, gasaren, argindarraren, telefoniaren hartuneak; estoldak; eta abar).

Eraikin Berriaren Deklarazioari eta eraikinaren Jabetza Horizontaleko Erregimenaren Eraketari dagokion idatziaren zirriborroa (azken hori, beharrezkoa den kasuetan bakarrik).

Instalazio Buletinaren, Proba Protokoloaren eta Obra Amaierako Egiaztagiriaren kopiak, Telekomunikazioen Ikuskaritzako Bizkaiko Probintzia Zuzendaritzak zigilatuta (eraikinak 20 etxebizitza baino gehiago baditu). Eta telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbiderako azpiegitura komunari buruzko proiektuari dagokion dokumentazioa.



Urbanizazio lanak egokiro gauzatuko zirela bermatzeko gordailatutako abal edo bermea bueltan jasotzeko eskabidea (horrelakorik egon bada).

Eraikuntza eta eraiste hondakinak eta materialak egokiro kudeatuko zirela bermatzeko gordailatutako abal edo bermea bueltan jasotzeko eskabidea. Horrekin batera, eraikuntza eta eraiste hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko amaierako txostena, 112/2012 Dekretuaren III. Eranskinaren 6. artikulua edukiarekin.

Basauriko Udaleko Jardueren Atalean aurkeztutako aitorpenaren fotokopia, hain zuzen ere, Ekonomia-jardueren gaineko Zergaren 833 idazpuruan (higiezinaren sustapena) eskualdatutako m2 kopurua jasotzen duena, hala badagokio.

Bide publikoaren okupazioari buruzko agiria, airetiko eta lurreko (markesinak, garabiak eta hesi babesleak) okupazio-aldiak adierazita.

Ebazteko epea

3 hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Ezesleak.



L-8

MERKATARITZA-LOKALEAN LANAK EGITEKO ETA ERABILERA ALDATZEKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Egoitza-eremu finkatueta beheko solairuko eta beste solairuetako lokalen erabilera aldatu eta etxebizitza bihurtzeko egin beharreko lanak.

Baldintzak

Hiri-lurzoruko egoitza-eremu finkatueta kokatutako eraikinetan egon behar dute lokalek, erabilera-aldaketa baimendu daitekeen kaleetan; Erabilera-aldaketak eta obrak arautzen dituen Udal Ordenantzaren I. Eranskinean (planoak) jasota daude kale horiek.

Ez da lanak egiteko eta erabilera aldatzeko lizentziarik onartuko indarreko Plan Orokorren ondorioz garatutako eremu edo sektoreetan, baldin eta agortuta badago Plan Orokorrak eremu horietako bakoitzerako finkatutako etxebizitzaren kopurua.

Era berean, ez da lanak egiteko edota erabilera aldatzeko lizentziarik emango berariaz zein era geroratuan antolamendutik kanpo utzitako eraikinetarako.


Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Exekuzio-proiektua, teknikari eskudunak sinatua.

Lokalaren kokapena jasotzen duen agiria (erabilera-aldaketak eta obrak arautzen dituen Udal Ordenantzaren I. Eranskinean jasotako kaleren batean egon beharko da). Aurretiazko kontsulta egon bada, ez da beharrezkoa izango agiri hau aurkeztea.

Jabetza Erregistroaren ohar soila, proiektuak barne hartutako lokala(k) Erregistroan inskribatuta dagoela/daudela egiaztatzeko.

Jabeen komunitatearen akta-liburuaren fotokopia, hain zuzen ere, proposatutako erabilera-aldaketa onesteko ala ezesteko erabakia jasotzen duen zatiarena.



Ebazteko epea

3 hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-9

ERAISTE-LANETARAKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Lizentzia honen pean daude eraikuntzak eraisteko lanak, eraikuntza horien erabilera edozein dela ere: egoitzazkoa, merkataritzakoa, industrial, ekipamenduzkoa...
Salbuespena: hur-hurreko aurri egoeran dauden eraikinak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eraiste-proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta haren elkargo ofizialak ikus-onetsia.

Lanak amaitutakoan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Obra amaierako egiaztagiria eta likidazioa, lanak zuzendu dituen teknikariak sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak behar bezala ikus-onetsita.
- Eremuko argazki-sorta, lanak amaitu eta gero.
- Eremuaren amaierako egoera deskribatzeko dokumentazio grafikoa.
- Urbanizazio lanak egokiro gauzatuko zirela bermatzeko gordailatutako abal edo bermea bueltan jasotzeko eskabidea (horrelakorik egon bada).
- Eraikuntza eta eraiste hondakinak eta materialak egokiro kudeatuko zirela bermatzeko gordailatutako abal edo bermea bueltan jasotzeko eskabidea. Horrekin batera, eraikuntza eta eraiste hondakinen eta materialen kudeaketari buruzko amaierako txostena, 112/2012 Dekretuaren III. Eranskinaren 6. artikulua edukiarekin.

Ebazteko epea

Hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea:

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-10

PARTZELAZIOAK, BANANTZEAK EDOTA ELKARKETAK EGITEKO LIZENTZIA

Zein jarduketa barne hartzen dituen

Lizentzia beharko da edozein lurzoru motatan orubeak, lurzatiak, finkak edo lursailak aldi berean zein segidan bereizteko; bai lote bitan edo gehiagotan, bai finka independente berrietan. Lizentzia beharko da, era berean, horiek guztiak elkartzeko.

Lizentzia behar duen bereizte edo elkartzea ez bada hirigintza-partzelazioa, Udalak dagokion banantze- edo elkartze-lizentzia emango du.

Baldintzak

Sortutako lote edo finkak hiri-lurzoruan edota lurzoru urbanizagarrian badaude, zati batean edo osorik, hirigintza-partzelazioa izango da. Lurzoruaren Legearen 39.1.b) artikulua lurzoru ez urbanizagarriko aurreikusitako kasua ere hirigintza-partzelazioa izango da.

Udalan aurkeztu beharko da egintzaren eskritura publikoa, non oso-osorik jasoko den berau baimentzen duen lizentzia. Hala egin beharko da lizentzia eman eta hurrengo hiru hilabeteetan zehar. Baldintza hori bete ezean, eta interesdunari entzun eta gero, lizentzia iraungi egingo da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Finken hasierako eta amaierako egoeren planoak, eskala egokian.

Finka nagusiaren eskrituraren fotokopia. Bestela, finka nagusiaren Jabetza Erregistroko ohar soila, banandu nahi den finkari buruzko Erregistroaren datuekin.

Lursailen bereizketari buruzko eskritura publikoaren zirriborroa, proposatutako lotekako partzelazioarekin.



BASAURI
Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

Ebazteko gehienezko epea

3 hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Ezesleak.



Zein obra barne hartzen dituen

Jabetza publikoko udal lurrian (kaleak, plazak, parkeak, lorategiak, eta abar) zangak eta hondeaketak egiteko lanak. Obra horien xedea izango da edozein motatako zerbitzu edo kanalizazio jartzea eta, oro har, jabetza publikoko udal lurraren azpiari eragiten dion beste edozein.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Egin beharreko obren proiektua, teknikari eskudunak idatzia.

Obren eragina jasan dezakeen hoditeria eta zerbitzu guztien berri izateko (Iberdrola, Euskaltel, Gas Natural, udal zerbitzuak, eta abar), dagokion hoditeriaren jabeak bidalitako idatziak eta horien planoak aurkeztu beharko dira; bestela, kontratua aurkeztu ahalko da (INKOLANek kudeatutako www.inkolan.com webgunetik jaitsi daitezke fitxategiak).

Elkargoaren jakinarazpen-orria, non esku hartu duten teknikariak eskatu zituela jasoko den.

Ebazteko gehienezko epea

6 hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-12

PUBLIZITATEDUN HESIAK, DORREAK, KARTELAK EDOTA EGITURADUN ERROTULUAK JARTZEKO LIZENTZIA

Zein obra barne hartzen dituen

Publizitaterako hesiak, dorreak, kartelak edota egitura batean eutsitako errotuluak jartzea, bai lursail edo finka partikularretan, baita lurzoru publikoan ere.

Baldintzak


Aurretiazko kontsulta egingo da, kokapena eta dena delako instalazioaren ezaugarriak adierazita.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Euskarri-egitura instalatzeari buruzko proiektu teknikoa, teknikari eskudunak sinatua.

Lanak amaitutakoan, eta aurretiaz emandako baimen bat berritzen den bakoitzean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Teknikari eskudunak sinatutako agiria, dena delako elementuaren egitura egonkorra dela egiaztatzen duena.
- Erantzukizun zibileko aseguru polizaren kopia, eguneratua eta eskatzaileak sinatua.
- Jarritako elementuaren argazkia.



Ebazteko gehienezko epea

Hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Baiesleak.



L-13

«APARKATZEA DEBEKATUTA» LELOA DUTEN PLAKAK JARTZEKO LIZENTZIA

Aplikazio eremua

Jardueretarako sarbideetan aparkatzeko debekua jasotzen duten plakak jartzea.

Baldintzak

Dena delako jarduerak behar bezala legeztatuta egon behar du.

Garajeek, aparkatzea debekatzeko edo ibi iraunkorreko plakak eskuratu ahal izango dituzte, udal mugarte osoan.

Gainerako jarduerai, oro har, aparkatzea debekatzeko plaka dagokie, bakar-bakarrik, hiri-lurzoru industrialean kokatuta badaude.

Titularraren kontura izango dira zintarria jaisteko eta (gerora) leheneratzeko lanak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Jarduera batean «aparkatzea debekatuta» dioen plaka jartzeko baimena eskatzeko, idatzia aurkeztu beharko da, ondoko hauek adierazita: jardueraren kokapena; titularra; lokalerako sarbidearen argazkia; zenbat ibilgailu erabiltzen diren (azken hau, ibilgailuen zaindegien kasuan bakarrik).

Ebazteko epea

Hilabete.

Akatsak zuzentzeko epea

15 egun.

Isiltasunaren ondorioak

Ezesleak.

Basauri, 2016ko urriaren 28an.

ALKATEA,

Sin.: Andoni Busquet Elorrieta.



